

8. FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresak produktua ekoizteko osagai guztiak ekoiztu ezin dituenenez gehienbat hauek izango dira gure enpresaren jarduera nagusiak:

Alde batetik, radarra ICR radar ekoizle enpresari erosiko diogu eta, hortaz, enpresa horrekin kontaktuan egon beharko gara. ICR-rekin erlazio zuzen bat mantenduko dugu, momentu guztian beraiekin kontaktua mantentzen sor daitezkeen edozein arazo konpontzeko (radarretan arazo mekanikoren bat edo entrega heltzeko orduan arazoren bat) eta merkatura ateratzen dituzten produktuen berri lehenengoak izateko. Azken finean, gure hornitzaile garrantzitsua izango da eta komeni da erlazio zuzen eta hurbilekoa izatea.

Beste jarduera garrantzitsu bat pantailaren ekoizpena izango da, eta lehen azaldu dugun bezala horretaz kontratatuko dugun ingenieroa arduratuko da. Ingenieroaren funtzioa nahitaezkoa izango, pantaila ekoiztu eta radarrarekin batera konektatuko du gure azkenengo produktua ekoizteko. Horretarako, beharrezkoak diren baliabide teknologiko honenetaz baliatuko gara, azkenengo produktua kalitatezkoa izateko.

Produktuaren salmenta lehenengo mailako jarduera izango da, izan ere, gure diru sarrera nagusia izango da. Aurretik azaldu dugun bezala, gure produktua denda fisikoan saldu egingo dugu, baina baita ere webgune bat izango dugu produktua eskuragarriagoa izateko.

Salmenta hauek igotzeko, sare sozialetan ezagutzera emango gara, gaur egun jendeari zure ideia heltzeko metodo errezena delako eta mundu guztia edo ia guztia sare sozialetatik mugitzen da. Baita ere, marketing kanpaina bat martxan jarriko dugu, baina hori gure diru sarreren araberakoa izango da. Hasieran, marketinean egingo dugun inbertsioa txikia izango da eta diru sarrerekin batera esponentzialki igotzen joango da, hau da, beti ez da berdina izango.